



Mahai Sektoriala: HAU LOTSA!

Atzo Lakuan izandako mahai sektorialean, Hezkuntza Sailak berriro erakutsi zigun bere aurpegi gogorrena.

- Lan akordioa orain dela bi urte iraungi eta gero; “negoziatzeko” azken bileratik zazpi hilabete pasa ondoren, luzatzen diguten bilerako gai zerrendan gure aldarrikapenak ez daudela ikusten dugu. Bileran bertan galdetuta, administrazioko ordezkariak bi motatako erantzunak ematen dizkigute: edo “**izoztuta jarraituko direla**”, gure lansarien kasuan, adibidez, edo “**berdin jarraituko direla**”, bajetako deskontuak, ordezkapenak berandu betetzea, edo borondatezko erretiroaren kasuetan. Hau da, gure lan baldintzak hobetzeko planteatu ahal den edozein gauzari, erantzun berbera emango diote: dirurik ez dagoenez, krisia dela eta, ezin dugu ezer hobetu.
- Hori bai, azkenean, EPE-ri buruzko “informazioa” luzatu ziguten:
 - **Haur eta Lehen Hezkuntzarako 275 plaza** aterako dituzte.
 - “Eskaintzak” 2014ko amaieran eta 2015eko hasieran. Gero, deialdi bakarra.
 - Oposizioaren prozesua eta gaitegia azken aldiaren erabilitakoak lirateke.
 - Ez dago argi ordezkoen zerrendetan zeintzu ondorio izango zuten.

STEE-EILASen argi dugu honelako EPE batek ez duela Eskola Publikoak dituen beharrak asetuko. 275 lanpostutarako milaka ordezkoko dantzan jartzea ez da langileen egoera hobetzea, beraien mesedetarako propaganda hutsa baizik. Kontuan hartu behar dugu urtero 500 irakasle inguru jubilatzen direla; beraz EPE honekin urte batean ditugun “bajen” erdia besterik ez da betetzen. Eta gogoratu behar azken bi urteetan EPERik ez dela egon. Hau da, Eusko Jaurlaritzak egiten duena da Hezkuntza Publikoko langileria prekarizatzea.

STEE-EILASentzat bai argia dela EPE honen lehen funtzioa Hezkuntza Sailari propaganda egitea dela eta medioetan enplegu sortzaile moduan agertzea.

LAN BALDINTZAK HOBETEKO, NEGOZIAZIOA BEHAR DUGU!

MESA SECTORIAL: ¡VERGONZOSO!

*En la Mesa Sectorial de ayer recibimos una **negativa a todos los puntos** planteados por la parte sindical: cese de los recortes, aumento de plantillas, cubrir todas las sustituciones, recuperar poder adquisitivo y derecho a una jubilación digna). Las razones que dan son la falta de presupuesto y la crisis.*

*Eso sí, finalmente nos hablaron de la **OPE: 275 plazas de Infantil y Primaria**, en principio con el proceso y temarios de la última convocatoria y sin aclarar si repercutirán en las listas de sustituciones. Teniendo en cuenta que cada año hay unas 500 jubilaciones y que no ha habido oposiciones en los dos últimos años, es clara la insuficiencia de la convocatoria y la precarización del sector. ¡Y el Departamento quiere venderse como creador y estabilizador de empleo!*

¡POR UN TRABAJO DIGNO, NEGOCIACIÓN YA!

ARABA: Eulogio Serdán 5 (behea)	01012 Gasteiz	945 14 11 04	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	944 10 02 98	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	943 46 60 00	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Joaquín Beunza, 4-6	31014 Iruñea	948 21 23 55	nafarroa@stee-eilas.org